



2006-10-04

Liburutegiko informazioa eskuratzeko txartela abian

Errenta aitorpena ere egin ahal izango da Herritarren Txartel Elektronikoaekin

I. Berrio

Liburutegian liburuak alokatu edota erreserbatzeko eta Udaleko web orrian informazioa eskuratzeko balioko duen txartela aurkeztu zuen atzo Udalak: Herritarren Txartel Elektronikoa. Bi lekutan eskuratu ahal izango da doan, Olibeten dagoen KZgunean eta Madalena kaleko Udal Liburutegian.

Behin txartela eskuratuta, Internet bidez, herriko zein txartelari atxikitutako herrietako liburutegietan kontsultak egin ahal izango dira. Liburua aukeratu eta web orriak liburua libre dagoen azalduko du. Liburua beste norbaitek baldin badu, erreserba egin ahal izango da. Erreserba eginez gero, liburua eskuragarri dagoenean liburutegiko arduradunek telefonoz abisua emango diote eskatzaileari liburuaren bila joateko.

Bestetik, txartelaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udalaren web orrian hainbat tramite egin ahal izango da. Besteak beste, errolda kontsultatu edota errenta aitorpenak aurkeztu.